

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## DBH eta FPko oposizioen aurkezpen ekitaldia ekainaren 20an izango da

*Iruñeko Navarro Villoslada eta Iturrama institutuetan izango da, 16:30etik 20:30ra bitartean*

Asteartea, 2018.eko ekainak 12

Hezkuntzak Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako oposizioen hautagaiak ekainaren 20an deitu ditu tribunalen aurreko [aurkezpen ekitaldi](#)ra. Iruñeko Navarro Villoslada eta Iturraman, 16:30etik 20:30ra bitartean, izango da hitzordua eta hautagaiak hara aurkeztu beharko dute programazio didaktikoa, oposizioaren deialdian esaten den bezala.

Gaur argitaratuta ebazpenak iragartzen duenez, idatzizko froga ekainaren 23an izango da, goizez eta arratsaldez, eta ariketa praktikoa, berriz, ekainaren 25etik 29ra bitartean. Deialdien zehaztasunak, hizkuntza eta espezialitateari dagokionez, lehenago argitaratuko dira Hezkuntza departamentuaren webgunean.

Era berean, onartu eta ez onartuen behin betiko zerrenda ere argitaratu da gaur. Informazio guztia [hemen](#).